

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure proiektuak funtzionatu dezan hainbat gauza egin behar ditugu:

Hasteko gure proiektua egiteko aurrekontu bat egin behar dugu, behar ditugun gauzak erostean diru faltarik ez edukitzeko. Gainera, jendea kontratatu beharko dugu gure salmentak garraiatzeko. Oso garrantzitsua izango da 3 furgoneta erostea eta hainbat txirringa, salmenta pisutsuak garraiatu ahal izateko, eta honekin batera, langile bakoitzerako motxilak lortuko ditugu. Bestalde, mugikorrerako aplikazioa ondo konfiguratuta eduki beharko dugu arazorik ez izateko eskarietan, eta honekin batera hainbat informatikari aditu kontratatuko ditugu eskariak kudeatzeko. Webgunea egin beharko dugu ere, jendeak ordenagailutik sartu ahal izateko. Gainera, Wifi konpainia bat kontratatuko dugu, wifia edukitzeko eta telefono fijo bat gure bezeroen deiak eta dudak jasotzeko. Gure enpresaren lokala aurkitu beharko dugu ere, eta hor gure bulegoa jarri. Lokalean ura, gasa eta argia jarriko dugu, langileek lan ingurune eroso edukitzeko. Hau dena funtzionatu ahal izateko jarduera nagusia dendari eta dendekin hitz egin beharko dugu gure elkartean sar daitezen gurekin kolaboratzeko.